


Mendebaldeko Saharako emakumeen Memoria Historikoa



EGILEAK:

Gloria Guzmán Orellana
Irantzu Mendia Azkue
Hegoa Institutua (UPV/EHU)
ISBN: 978-84-16257-13-3

KOORDINAZIOA:

Arantza Chacón Ormazabal
SEBNren aldeko Euskadiko Sarea
Arabako SEADen Lagunen Elkartea

DISEINUA ETA ILUSTRAZIOA:

Patirke Belaza eta Koke Gil

ITZULPENA:

Iñigo Gallastegi Zorrilla

MAKETAZIOA ETA INPRENTA:

EPS Comunicación

Argitalpena: Ekaina, 2019

SEBNren aldeko Euskadiko Sareak eta Arabako SEADen Lagunen Elkartek gida hau arabiarez eta gaztelaniaz argitaratu zuten 2016an, baita Sarea laguntzen duten beste erakunde guztiek ere. Bertsio hori hemen kontsulta daiteke:

<http://e.issuu.com/embed.html#8792836/41238276>

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/372>

Euskarazko edizio hau GLEAK finantzatutako honako proiektu honi esker argitaratu da: Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzaren baterako marko kontzeptual eta metodologikoa, PRO2016K3010.

Gida didaktiko honi lotuta, Mendebaldeko Saharako emakumeek okupazioaren kontra eta giza eskubideen defentsan egiten duten lana proiektu beraren laguntzaz Hegoak sortu duen Bakearen aldeko aktibismo feministaren mapan jasotzen da: www.hegoa.ehu.es/mapa_paz/inicio_eus.html



aURKIBIDEa

SARRERA: GIDA HONEN ZERGATIA **2**

I. Oinarri Teorikoa

I.1. EMAKUMEEN MEMORIA INDARKERIA SINBOLIKOAREN AURREAN **3**

I.2. EMAKUMEEN MEMORIA HISTORIAREN SUBJEKTU AKTIBO GISA **5**

I.3. EMAKUMEEN MEMORIA ALDAKETARAKO ETA AHALDUNTZERAKO TRESNA GISA **7**

II. Oinarri Metodologikoa

DINAMIKAK:

1. DENBORA-LERROA **9**
2. SIRIRI OPERAZIOA **10**
3. ERRESISTENTZIA-MAPA **12**
4. GORPUTZA DEFENDATU BEHARREKO LURRALDE BEZALA **13**
5. EMAKUMEEN AZTARNAK **15**
6. ISILTASUNA HAUTSIZ **16**
7. MEMORIA-LEKUAK **18**
8. EMAKUMEEN EGIA **20**
9. EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIO BIDEAK **22**

BIBLIOGRAFIA **24**



GIDA HONEN ZERGATIA

2011. urtean, Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren (SEBN) aldeko Euskadiko Sareak Tindufeko kanpamentuetako Emakumeen Etxeetan parte hartzen zuten emakumeen formaziorako materialak sortzea sustatu zuen. Hori euskal eta saharar emakumeen arteko akonpainamendu eta ahalduntze prozesuaren parte izan zen, urte batzuk lehenago sortutakoa. Hala, zenbait gida didaktiko egin ziren honako gai hauen gainean:

1. Emakumeen parte-hartze politikoa;
2. Emakumeen aurkako indarkeria;
3. Emakumeen sexu- eta ugalketa-osasuna;
4. Emakumeen lidergoa;
5. Emakumeen ahalduntzea;
6. Mugimendu feminista eta emakumeen mugimendua, eta
7. Sexuaren arabera lan banaketa

Hasieratik, helburua formazio-material hori handitzea izan zen, Tindufeko kanpamentuetako zein Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatueta emakumeen interesen eta eskaeren arabera gida didaktiko berriak sortuz. Horrelaxe sortu zen gida didaktiko berri honen ideia. Honen bidez, Saharako gatazkaren memoria historikoa landu nahi da baina emakumeen azterketetatik eta esperientzietatik abiatuta.

Hala, gida hau formatzaileei zuzenduta dago, baita genero ikuspegitik memoria historikoa berreskuratzeko prozesu bat abiatzeko lan-saioak erraztu nahi dituzten horiei ere. Gure ustez, gatazka politiko-armatuko testuinguruetan, Mendebaldeko Sahararen kasu, memoria historikoa giza eskubideen urraketen aurrean egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea aldarrikatzeko tresna sozial eta politikoa da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da memoria historikoa ekitatez berreskuratzea, emakumeen hitzei eta bizipenei entzungor egiten dieten joerak saihestuz; izan ere, maiz, bidegabeki, bizipen horiek ez dira garrantzitsutzat edo gogoratu beharrekotzat jotzen.

Gidak bi atal nagusi ditu. Lehenengoa oinarri teorikoari dagokio eta gaiari heltzeko abiapuntua ematen duten zenbait kontzeptu eta ideia ematen ditu. Horren bitartez, bada, bigarren atalerako azterketa-markoa eman nahi dugu. Bigarren atala oinarri metodologikoari dagokio eta horretan bederatzita lan-dinamika proposatzen ditugu. Gida honek hausnarketa sustatzeko tresna bat izan nahi du; hortaz, egin beharreko lanean sakondu nahi izatekotan, gaiari buruz gehiago irakurtzea gomendatzen dugu. Zentzu horretan, beraz, gida honen amaieran gomendatutako bibliografia sartu dugu, Interneten eskuragarri dagoena.

Azkenik, gida hau Saharako emakumeek Mendebaldeko Sahararen independentziaren eta giza eskubideen alde egindako borrokan oinarritzen da batez ere.





1. EMAKUMEEN MEMORIA INDARKERIA SINBOLIKOAREN AURREAN

Emakumeek munduko hainbat lekutan egindako borrokak eta lorpenak kontuan hartuta ere, datuen eta esperientzien arabera, desberdintasun handiko eta patriarkala den mundu batean bizi gara. Berez, gizartearen antolakuntzan, oraindik ere autoritatea maskulinoak femeninoaren gainean duen hegemoniaren menpe dago.

Munduan gizonen eta emakumeen ehuneko bera dago ia. Hala ere, eremu baloratuenak, ospe handienekoak eta hobeto ordaintzen direnak gizonen eskuetan egoten dira eta gizartearen eta ekonomian gutxien baloratzen diren horiek, aldiz, emakumeei egokitzen zaizkie. Gizarte antolaketa desberdin horrek, bada, hainbat ondorio ditu emakumeengan: hezkuntza eta osasun-arreta aukera gutxiago, ondarea eta herentziak eskuratzeko aukera gutxiago, edo erabakitzeko leku eta postuetan emakume gutxiago izatea. Parte-hartze politikoari begiratzen badiogu, adibidez, 2014an zortzi herrialde hauek ez zuten emakume bat ere ez gobernuan: Libano eta Saudi Arabia (Arabiar eskualdean), Pakistan eta Brunei Darussalam (Asian), San Marino eta Bosnia-Herzegovina (Europar) eta Salomon Uharteak eta Vanuatu (Pazifikoa)¹.

Agian, desberdintasunezko egoera horren ondoriorik latzena emakumeen aurkako indarkeria da, mota askotarikoa dena eta mundu osoan ematen dena. Adibide bezala, hona hemen bi datu: lehenik, Afrikako eta Ekialde Ertaineko 30 herrialdeetan mutilazio/ablazio genitala ohikoa da eta, horietan, 200 milioi neskek eta emakumeek praktika kaltegarri hori pairatu dute, horren ondorioz, hemorragia luzeak, infekzioak (GIBa barne), zailtasunak erditzean, antzutasuna eta heriotza arrisku handia dutelarik²; eta bigarrenik, Europako Batasuneko kide diren 28 herrietako emakumeen %43k, beren bizitzan zehar, nolabaiteko indarkeria psikologikoa pairatu dute beren bikotekidearen eskutik³.

Indarkeria zuzen eta psikologikoko adibide horiez gain, *indarkeria sinbolikoa* ere daukagu eta kontzeptu horrek, bada, emakumeen memoria historikoa lantzearen garrantzia ulertzen laguntzen du. Indarkeria sinbolikoa emakumeen izatearen zentzua eta esanahia ukatzen duen indarkeria da, horien historiari eta ekarpeni entzungor egiten diena. Hala, honako hauek dira horren ideia nagusiak: subjektu kolektibo bezala ikustezin bihurtzea eta emakumeen ekintzek gizadiarentzat duen garrantziaren aintzatespen faltagatik sortzen den gutxiespena⁴.

Orokorrean, emakumeak ikusezin bihurtzea eta gutxiestea ez dira horrelaxe antzematen; aitzitik, egunero bizi gara horiekin, normalak edo naturalak izango balira bezala. Ondorioz, ez gara konturatzen horiek eraikitako gizarte-harreman hierarkiko eta autoritarioen emaitza direla. Halaber, historia ofizialean, baita herri-historian ere, entzungor egin diegu emakumeek egindako ekarpen handiei. Are gehiago, beste garai batzuetan, emakumeek gizonaren itxurak egin eta gizon bezala jantzi behar izan dute beren ekarpenak (zientzietan, politikan, literaturan, etab.) aintzat hartuak izan zitezten.

1 NBE Emakumeak (2015): *Mapa 2014 de las Mujeres en Política*. Hemen: http://www.ipu.org/pdf/publications/wmdnmap14_sp.pdf

2 NBE Emakumeak (2016): *Hechos y cifras: acabar con la violencia contra mujeres y niñas*. Hemen: <http://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/facts-and-figures#sthash.ZJ5cxgjV.dpuf>

3 Oinarrizko Eskubideen Europako Batasuneko Agentzia (2014): *Violencia de género contra las mujeres: una encuesta a escala de la UE*. Hemen: http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-main-results-apr14_en.pdf

4 Carmen Magallón (2006): *Mujeres en pie de paz*, Siglo XXI, Madrid.



Ikusezin bihurtze eta gutxiespen historiko hori gizarte- eta politika-bizitzaren egoera guztietan jazotzen da, iraultzetan eta gatazka politiko-armatuetan ere. Hori, izan ere, mundu osoan gertatu da, baita gure pentsamenduarekin bat datozen edo parte-hartu ditugun borroka sozial eta politikoetan ere. Orokorrean, iraultzen heroi handiek eta bidezko eta garrantzi handiko kausen alde borrokatu diren gizon horiek aintzatespen handiagoa izan dute eta asko idatzi da haiei buruz; antzeko ibilbideak izan dituzten emakumeei buruz, ordea, oso gutxi esan eta idatzi da. Hori azaltzeko, bada, El Salvadorreko giza eskubideen aktibista diren bi emakumek honako hausnarketa hau egiten dute lau hamarkadez politikoki parte hartu eta gero (El Salvadorren gerra zibila izan zen 80ko hamarkadan)⁵:

“ Emakumeok ahalegin handia egin genuen errealitatea aldatzeko; baina non aintzatetsi da gure ekarpena? Horri buruz idatzi duten pertsona gehienak gizonak dira, ez emakumeak...

Hemen hainbat liburu daude, baina ea horietan aurkitzen duzuen emakumeen lana eta, zuzenean, biktimen lana... Niretzat emakumeon lana oso garrantzitsua da eta askotan esaten diot nire buruari: ‘Jainkoa, Komiteak [eraildako eta desagertarazitako pertsonen senideek osatzen dituztenak] amaituko dira eta zer egin dugun ere ez da jakingo’, horri buruz ez baitugu ezer idatzi. Gaur egun, nik hori idatzita geratzea nahi nuke hil baino lehen”

Horregatik, munduko hainbat lekutan emakumeek honako hau aldarrikatzen dute: memoria historiko bidezkoago bat izateko, emakume aktibisten eta, orokorrean, emakumeen esperientziak aintzat hartu behar dira. Iraganean eta baita orainean ere egindako lanak ematen dien protagonismoan oinarrituz, emakumeek beren bizipenak berreskuratu eta horien gainean hausnartu behar dute, beren historia idatzi, beren narratibak aintzat hartu. Izan ere, gero eta kontzientzia gehiago dago horren gainean. Bestela, emakumeen memoriak bigarren maila batean jarraituko du eta, batez ere, historiak partziala eta bidegabea izaten jarraituko du.

⁵ Gloria Guzmán Orellana eta Irantzu Mendia Azkue (2013): *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador*, Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/system/ebooks/19515/original/Mujeres_con_memoria.pdf?1371735858



2 emakumeen memoria historiaren subjektu aktibo gisa

Emakumeengandik gatazka politiko-armatuen memoria historikoa eraikitzeak beraien aurkako indarkeria ikertzera eraman behar gaitu, baita horren ondorio fisikoak, psikologikoak, familiarak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak eta abar ere. Generoari dagozkion arrazoiengatik, indarkeria politikoak eta armatuak ez du eragin bera emakumeengan eta gizonengan. Horregatik, garrantzitsua da emakumeek pairatzen dituzten ondorio espezifikoek ohartzea, baita haien aurka maizago egin ohi diren giza eskubideen urraketak ezagutzea ere. Sexu-indarkeria, besteak beste, horren adibidea da. Izan ere, Nazioarteko Zuzenbideak gerrako, gizateriaren aurkako eta genozidio krimenez hartzen du sexu-indarkeria eta, gizonekin konparatuta, horrek eragin neurrigabea du emakumeengan.

Emakumeen aurkako indarkeriaren egia aztertzerakoan, estrategikoa da gertakariez berez gain emakumeen esperientzia subjektiboa ere ezagutzea; zein da beraien bizipena eta sentimenduak horren gainean, gertatutakoari ematen dioten esanahia, zerk lagun diezaikeen gehien erreparazio bidean, etab. Alderdi horiek, bada, baztertuak izan ohi dira gerrari buruzko ohiko ikerketa eta balantzeetan baina funtsezkoak dira biktimen memoriaren eta beraien esperientziari eman nahi diogun tokiaren ikuspegitik.

Zentzu horretan, azpimarratu nahi dugu emakumeen testigantzari sinesgarritasuna ematearen eta gizarteak hori legitimatzearen garrantzia; izan ere, historian zehar, hori zalantzan jarri izan da, gizonen testigantzari baino sinesgarritasun gutxiago emanez.

Emakumeen aurkako indarkeriak sortutako kaltea eta ondorioak onartzeaz gain, horiek bizirik mantentzeko, kaltea gainditzeko eta giza eskubideen urraketari aurre egiteko duten gaitasuna ere aintzat hartzea beharrezkoa da. Hots, funtsezkoa da emakumeak subjektu aktibo bezala birkokatzea; izan ere, gatazka politiko-armatuen imajinario sozialean emakumeen zaugarritasunaren eta biktimizazioaren ideiak nagusi izaten jarraitzen du. Gizonen erabili ohi duten "emakumeak eta haurrak" esaera emakumeen infantilizazioaren eta ikusezin bihurtzearen erakusgarria da, ekintza sozial eta politikoaren subjektu direla ukatzen duena, alegia.

Hainbatekimenek emakumeen gaitasuna adierazten dute beraien giza eskubideen urraketan zigorgabetasunari aurre egiteko eta egia, justizia eta erreparazio alternatibak sortzeko. Munduan zehar, emakumeak honako estrategia hauen protagonistak dira, besteak beste: a) giza eskubideen urraketan ikerketa, dokumentazioa eta salaketa; b) indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten biktimentzako akonpainamendu psikosoziala; c) indarkeriaren erantzuleak epaitzeko auzitegi sinbolikoak sortzea; eta d) emakumeentzat erreparazio integraleko neurriak aldarrikatzea.

Aipatutako strategi horietatik auzitegi sinbolikoena azpimarratu nahi dugu; izan ere, inpunitate handiko egoeretan, non ohiko auzitegietan justizia lortzea oso zaila izaten den, auzitegi sinbolikoak salaketa eta erreparazio tresna alternatiboa izan dira. Horren adibide da Tokioko Auzitegia (2000); Bigarren Mundu Gerran Japoniako armadak hainbat herrialdeko emakumeen kontra erabili zuen sexu-esklabotza epaitu zuena. Kolonbian ere, lau auzitegi sinboliko hauek ospatu dira: 1) Emakumeen aurka egindako gizateriaren

kontrako delituen aurkako Egiaren Auzitegia (1998); 2) Ahaztearen kontrako eta Berriro bizitzeko Emakume Kolonbiarren Gorteak (2005 eta 2006); 3) Egiaren auzitegi sinbolikoa: "Azala letreiatu kanpaina" (2007); eta d) Emakumeen giza eskubideen urraketen gaineko auzitegia: "Emakumeen ahotsa gabe egia ez da osoa" (2010). Guatemalan, aipatzekoa da Barne gatazka armatuan zeharreko emakumeen kontrako sexu-indarkeriaren aurkako Kontzientzia Auzitegia (2010). Latinoamerikako beste adibideen artean honako hauek dira aipatzekoak: Emakumeen giza eskubideen urraketen kontrako auzitegia, Costa Rican (1995), eta Emakumeen kontrako indarkeria eta bereizkeriaren gaineko Kontzientzia Auzitegia: Ciudad Juarez eta Chihuahua kasuak, Mexikon (2004). Halaber, euskal emakumeek Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia ospatu zuten Euskal Herrian (2013).

Ekimen horien esanahia eta ahalmena desberdina izan daiteke testuinguruaren arabera. Hala ere, orokorrean honako hau lortzen dutela uste dugu: a) gertatutakoaren memoria eta aitorten historikorako eremuak sortzen dituzte; b) eztabaida sozial eta politikoa eragiten dute emakumeen aurkako krimenen gainean, batez ere sexu-krimenen gainean, eta c) dokumentatutako eta aurkeztutako kasuak justizia-sistema formalera helarazteko baldintzak sortzen dituzte.



3 emakumeen memoria aldaketarako eta ahalontzerako tresna gisa

Estatua giza eskubideen urraketen erantzule nagusia izan den gatazka politiko-armatu guztietan, memoria-politika ofizialak inposatu nahi izan dituzte. Politika horiek ezarri nahi duten egia horretan ez dira biktimen bertsioak eta memoria-adierazpenak sartzen. "Berriro hutsetik hasi", "amaierako puntu" edo "barkamena eta ahaztura" izenez ezagutzen diren legeak horren adibide ezagunak dira. Horien helburua, bada, giza eskubideen urraketa larrien erantzuleak babestea da, epaituak izan ez daitezten. Gainera, goitik behera inposatutako politika ofizial horiek hezkuntza-curriculumetan, justizia-sisteman, hedabideetan eta abarrea eragina duten neurriak dituzte, gertatutakoari buruzko bertsio bakar eta deformatu bat finkatzeko helburua dutenak. Historiak erakutsi duen bezala, "orrialdea pasatzeko" modu horrek zigorgabetasuna are gehiago indartzen du eta gizarte-bizikidetzak faltsua sortzen du.

Beraz, "memoria ofizial" horren aurkako gizarte-ekintza guztiak "behetik gora" eraikitako memoria baten parte dira. Hala, kolektibo sozial eta politikoak memoria horren protagonistak dira eta oinarritik, duintasuna, justizia eta erreparazioa eskatzen dute biktimentzat. Bertan kokatzen da, hain zuzen, emakumeen aktibismoa memoria historikoaren gainean; izan ere, hori, berez, indarkeriaren salaketa etengabea eta giza eskubideen defentsa da.

Horrez gain, emakumeen aktibismoa belaunaldiartekoa da. Hori dela eta, emakumeengandik memoria historikoa sortzeak aurreko belaunaldietako emakumeen esperientziak berreskuratzea eskatzen du, esate baterako, gure amama, ama eta izekoena edo indarkeriaren eta zigorgabetasunaren aurreko herri-borrokan erreferente izan diren beste emakume batzuen, senideak izan edo ez. Emakume horiek, maiz, "ezkutuan" lan



egin izan dute, egunerokoaren eremuan, "etxeko" bezala izendatu den eremuan, lan hori "heroikotzat" aintzat hartua eta aitortua izan ez delarik (kontzeptu horren ohiko ulermena zein den kontuan hartuta). Hona hemen Bigarren Mundu Gerran nazismoaren aurka borrokatu zen emakume errusiar baten testigantza, ideia hori ondo adierazten duena⁶:

“ Aitak kondekorazio garrantzitsuak jaso zituen, nik bi domina besterik ez. Baina gure familian benetako heroia ama zen. Berak salbatu gintuen gu guztiok. Familia eta etxea salbatu zituen. Bere gerra izan zen latzena. Gure aitak ez zituen inoiz kondekorazioak janzen, lotsagarria iruditzen zizaion amaren aurrean harrokeriatan ibiltzea. Ez zen eroso sentitzen, nire amari ez baitzioten medailarik eman...”

Emakumeek memoria egiteak historia eta oraina modu kritikoan pentsatzen laguntzen digu; izan ere, bizi ditugun genero-harremanei buruzko alderdiak hausnartzera behartzen gaitu. Zentzu horretan, oso garrantzitsuak dira galdera hauek, besteak beste: Nork gogoratzen du? Zer gogoratzen da? Zer erregistratzen da? Nola gogoratzen da? Zergatik gogoratzen dira gauza batzuk eta ez beste batzuk? Galdera horien bitartez honetaz konturatzen gara: botere harremanek memoria zeharkatzen dute eta historia androzentrikoa da, hau da, gizonen ikuspegiak eta esperientziak kokatzen ditu erdigunean.

Gainera, galdera horiek generoaz aparte beste faktore batzuk daudela ulertzen laguntzen digute, hala nola, klasea, etnia, adina, sexu-orientazioa, etab. Faktore horiek, bada, memoria-prozesuak baldintzatzen dituzte eta historia komunean narratiba batzuek edo besteek hartzen duten indarra mugatzen dute.

Horixe da, hain zuzen, Saharako gatazkaren memoria historikoa emakumeengandik berreskuratzeko prozesu bat abiatzeko oinarri bezala hartzen dugun ikuspegi kritikoa. Ahalduz- eta ekitate-tresna bat izatea espero dugu, Saharako herriaren borroka eta erresistentziaren historia hurbila ikuspegi osoagoa eta aberatsagoa eskainiko duena.



1. DINAMIKA: **DENBORA-LERROA**




HELBURUA: Saharako gatazka eta erresistentzia bizitzeko emakumeok ditugun eta izan ditugun modu espezifikoak identifikatzea eta horietaz jabetzea, guretzat esanguratsuenak diren gertakari pertsonalak identifikatuz.

MATERIALAK: Markatzaileak, papelografoa edo arbela.

PROZEDURA: Gatazkaren historian gertakari eta bizipen pertsonalak, hau da, gatazkarekin izan dugun esperientzia gogora ekartzen dugunean arrazoi desberdinengatik bereziki gogoratzen dugun hori identifikatzearen garrantziari buruzko sarrera egingo dugu. Honako hau azpimarratuko dugu: bakoitzaren historia garrantzitsua da eta hori berreskuratu eta aintzat hartu behar dugu. Halaber, besteek gogoratutakoak zergatik diren garrantzitsuak ezagutu eta entzun behar dugu.

Aldi berean, guretzat garrantzitsuak diren gertakari kolektiboak izan daitezkeela eta horiek gogoratzea merezi duela azalduko dugu.



Kolore bateko markatzaile batekin (adibidez, gorria) lerroaren goiko aldean esperientzia pertsonalei dagozkien oroitzapenak idatziko ditugu. Beste kolore bateko markatzaile batekin (adibidez, urdina) lerroaren azpiko aldean emakumeon esperientzia edo ekintza kolektiboari dagozkion oroitzapenak idatziko ditugu. Dinamika garatu bitartean emakumeon gertakari kolektibo esanguratsuak identifikatzeko zailtasunak sortzen badira, azpiko aldean Saharako herriaren historiaren gertaera ospetsuenak idatzi ahalko ditugu.

Emakumeen historia pertsonala eta kolektiboa bat etor daitezke edo ez Saharako herriaren erresistentzia historian ezagunenak diren gertakariekin. Gainera, balio eta bizipen pertsonaleko zenbait gertaera kolektiboak diren beste gertaera batzuekin bat etor daitezke, bai horietan zuzenean parte hartu dugulako bai guretzat garrantzitsuak izan direlako.


BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Maiz, emakumeen parte-hartze aktiboa izan duten gertaera historikoak ez dira garrantzitsutzat hartzen kontakizun komunean. Izan ere, emakume protagonistak izan dituzten gertaerei ez zaie gizon protagonistak izan dituzten horiei bezainbesteko garrantzia ematen.

Gogora dezagun, teoria atalean irakurri dugun bezala, gatazka politiko-armatuetan eta bake-prozesuetan emakumeen lanak indarkeria sinbolikoaren eragina pairatzen duela; izan ere indarkeria hori kulturala da eta emakumeen aurka erabiltzen da beren izatearen zentzua eta esanahia ukatuz, beren historia eta ekarpenei entzungor eginez. Hala, subjektu kolektibo gisa ikusezin bihurtzea eta aintzatespen faltagatik eta beraiek egindakoak gizateriarentzat duen garrantzia ukatzean sortzen den gutxiespena dira ideia nagusiak.

Gure bizipen pertsonal eta kolektiboak bistaratzea eta aintzat hartzea emakumeen memoria eraikitzeko eta gure parte-hartze sozial eta politikoa gure herriaren historian kokatzeko oinarria da. Horrek, gatazkak emakume bezala nola eragiten digun hausnar dezagun eskatzen du.

Bestalde, azterketa linealeko eskema baten bitartez lan egiten badugu ere, historia konplexuagoa da beti eta espiral baten antz handiagoa hartzen du. Horregatik, bada, dinamikaren emaitzetan agian adierazitako gertaeren errepikapenak aurkitu eta aztertu ahal izango ditugu (esate baterako, aurre egindako indarkeria motak, egindako ekintza motak, etab.), batez ere taldea belaubaldi desberdinetako emakumeek osatzen badute.



2. DINAMIKA:

SIRIRI OPERAZIOA

HELBURUA:

Egia bilatzean emakumeen erresistentzia moduen gainean hausnartzea.

MATERIALAK:

Siriri operazioari buruzko testua eta galdera-gida.

PROZEDURA:

Taldeari testu labur bat emango diogu. Horretan, Fabiola Lalinderen historia azaltzen da. Bera kolonbiarra da eta bere semearen atxilotari eta desagertutako buruzko egia jakiteko eskubidearen alde borrokatu da pausarik gabe. Testua irakurri eta gero, galdera-gida baten bitartez esperientzia aztertuko dugu. Lantaldea txikia bada talde bakar batean egin daiteke hausnarketa; taldea handia bada, aldiz, lantalde txikiagoak osatzea komeni da, gero taldeen hausnarketak partekatuz.

a) Siriri operazioari buruzko testua

Fabiola Lalinde giza eskubideen aldeko aktibista da. Bere lan handiagatik, inpunitatearen aurkako borrokaren adibide eta sinbolo bilakatu da Kolonbian. Honako hau da bere historiaren zati bat:

1986an Kolonbiako armadak bere semea Luis Fernando atxilotu, desagerrarazi eta hil zuen. Hori Ayacucho batailoiak zuzendutako "Bele operazioaren" emaitza izan zen. Fabiola Lalinde, behin, bere semeari gertatutakoa ezagutzeko borrokaren ondorioz atxilotu zuten eta narkoterrorismoaz akusatu. Hala, erbestera joan behar izan zuen ere.

Azkenik, Fabiolak bere semearen gorpuzkiak non zeuden jakitea lortu zuen. Horiek modu klandestinoan lurperatu izan zituzten. Fabiolak "Siriri operazioa" deitu zion bere lanari. Berak, bada, horrela azaltzen du izen hori aukeratu izana: "Militarrek Bele operazioa erabili zuten Luis desagerrarazteko; beraz, nik neure operazio propioa asmatu nuen. Txikitan aitak ni Siriri bat nintzela esaten zidan eta esanahia galdetu nionean txori bat zela azaldu zidan. Txori horrek bere kumeak beleetatik babesten ditu horiek hil gabe... Siririak ez du inoiz gabirai bat hil, baina hain da saiatua eta nekagarria non gabiraiak askotan bere harrapakinak askatu behar izaten dituen. Horregatik jarri nion izen hori nire borrokari".

Fabiolak, beste hainbat ekintzen artean, bilaketa prozesuaren artxibo pertsonal bat sortu zuen: dena idatzi eta armadaren operatzeko moduari buruzko informazio asko bildu zuen, zigorgabetasuna agerian uzteko garrantzitsuztat jotzen zuen informazioa, alegia. Biktima bati buruzko artxibo pribatu handienetarikoa bat osatzea lortu zuen; esate baterako, Prokuradoretzari, Fiskaltzari, Medikuntza Legalari, Herriaren Defendatzaileari eta estatuaren beste instituzio askori zuzendutako eskutitzak biltzen zituen. Horietan argi ikusten da Lalinde familiak lan handia egin zuela kasuak arreta izan zezan. Artxiboak Luis Fernando bilatzeko prozesuari buruzko beste dokumentu batzuk ere baditu, hala nola, egunkari-zatiak, makinaz eta eskuz idatzitako testuak, azken 30 urtekoak, eta gorpua lurpetik atera zuteneko argazkiak.

2014an, Fabiolak bere artxiboaren kopia bat Memoria Historikoaren Zentro Nazionalari (CNMH) ematea erabaki zuen. Biktimen eta Lurrak Itzultzearen Legearen arabera erakunde horrek Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak erakusten dituzten artxibo guztiak biltzeko eta gordetzeko ardura du. Bere betekizun nagusia informazio instituzionalari dagokio, baina baita pertsonen eta erakundeek ematen dituzten artxibo pribatuei ere. Fabiolak honako baldintza hau jarri zuen bere lanaren artxiboa entregatzean: bere historia ezagutzera ematea, gazteen artean ere. Hala, artxiboa Internetera igo zezaten eskatu zuen, militarrek informazio hori desagerrarazi ez zezaten.

Fabiola emakume borrokalaria da eta bere Siriri operazioaren bitartez "behetik gorako" memoria sortu du, gertatutakoa beti ezeztatu izan zuten instituzio boteretsuei aurre eginez. Modu horretan, zigorgabetasunari aurre egin zion. Izan ere, borroka hori terapeutikoa izan da berarentzat. Bere hitzetan: "Etengabeko salaketak nire mina baretzen lagundu dit. Gertatutakoa dokumentatzeak, hori mingarria bada ere, maite dugun pertsonaren hilketari alferrik izan ez dadin laguntzen du, bera guztiz hil ez dadin".

b) Galdera-gida:

- ▶ Zer nolako sentimenduak eragiten dizkigu Fabiola Lalinderen historiak?
- ▶ Zer nolako ikaspenak eskaintzen dizkigu emakume borrokalari horren historiak?

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Fabiola Lalinderen lana indarkeriarik gabeko borroka aktiboaren erakusbidea da. Hamarkadetan zeharreko bere erresistentziaren bitartez, emakume horrek oso beharrezkoa zuen egiaren zati bat ezagutzera lortu zuela erakutsi du, horretarako arrisku- eta errepresio-egoerak pairatu behar izan bazituen ere.

Egia ezagutzeko eskubidearen aldeko bere borrokaren bitartez, Fabiolak Kolonbiako gizarteak gertatutakoa ezagutzera lortu zuen. Hortaz, gaur, Kolonbiako herriaren memoria kolektiboa osoagoa eta apur bat bidezkoagoa da.

Fabiola Lalinderen borroka sormen handiko emakume kementsu eta nekaezin baten eta zigorgabetasunaren aurkako aktibista sendo baten borroka bezala aintzat hartu behar dugu, eta ez bakarrik bere amatasunetik. Azken hori bakarrik hartuko bagenu kontuan gure analisia ez litzateke osoa izango eta emakume aktibisten zati bat besterik ez luke bistaratuko.



3. DINAMIKA:

ERRESISTENTZIA-MAPA

HELBURUA:

Emakumeen erresistentzia esperientziak izan dituzten leku anitzak identifikatzea, bai tokiko eremuan bai urruneko tokietan.

MATERIALAK:

Markatzaileak, papelografoa edo kartoi meheak.

PROZEDURA:

Parte-hartzaile kopuruaren arabera talde txikiak edo talde bakar bat osatuko dugu eta papelografoa edo kartoi meheak eta markatzaileak emango dizkiegu. Partaide bakoitzari gatazkaren historian Marokoko politikaren aurka emakumeek garatutako borroka-ekimenak (manifestazioak, protestak, eserialdiak, gose-grebak, topaketak, etab.) izan dituzten leku garrantzitsu eta esanguratsuak pentsatzea eskatuko diogu. Haiek parte-hartze zuzena izan duten lekuak eta momentuak izan daitezke, edo ezagutu dituztenak.

Gertuko edo tokiko eremutik hasia komeni da, proposatu daitekeen mapa baten arabera edota nork bere lurraldea edo beste leku garrantzitsu batzuk modu askean marraztuta.

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Gure memoria kolektiboa berregiteko emakumeok espazioan kokatzea garrantzitsua da. Maiz, emakumeak etxeari, etxeko lanei, haurren zaintzari eta, orokorrean, "eremu pribatuari" lotuta irudikatzen gaituzte. Gizonen, ordea, "eremu publikoari" dagozkion eremuak hartzen omen dituzte. Alabaina, hori ez dator errealitatearekin bat.

Gatazkarekin eta erresistentziarekin lotutako gure esperientzietan pentsatzen badugu, tokiko eremuan, horiek eskolan, fabriketan edo lantokietan, kartzela barruan edo kanpoan eta kaleetan gerta daitezke. Beste kasu batzuetan, aldiz, urruneko lekuetan gerta daitezke, esate baterako, atzerriko hirietako unibertsitateetan edo instituzioetan.

Emakumeon memoria kolektiboa berreskuratzeko marko horretan, leku guzti horietan kokatzeak gure burua eremu publiko-pribatu dikotomia klasikotik kanpo birpentsatzen laguntzen digu.

Gainera, identifikatu ditugun horiek leku esanguratsuak dira, gure bizitzak modu batera edo bestera eragin dutenak edo zeinetan, gure ekintzaren bitartez, gure aztarna utzi dugun historian.



4. Dinamika:

GORPUTZA DEFENDATU BEHARREKO LURRALDE BEZALA

HELBURUA:

Gatazka politiko-armatuetan emakumeen gorputzek pairatzen duten indarkeriaren aurrean, "lurralde-gorputza" defendatzearen ideia ezagutzeta eta horren gainean hausnartzea.

MATERIALAK:

"Gure lurralde-gorputza berreskuratzea eta defendatzea"ren gaiari buruzko testua eta galdera-gida.

PROZEDURA:

Testua emango diegu hori irakur eta azter dezaten. Irakurketa talde txikietan izan daiteke, saioan parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera. Testua irakurri eta gero, galdera-gida erabiliko dugu testuaren ideien gainean hausnartzeko.

a) "Gure lurralde-gorputza berreskuratzea eta defendatzea"ren gaiari buruzko testu laburra

Emakume indigena batzuek (esate baterako, Guatemalan, Bolivian, Perun, etab.) oso lelo interesgarria dute: "Gure lurralde-gorputza berreskuratzea eta defendatzea". Ideia horren bitartez zera adierazi nahi dute: emakumeen gorputza da defendatu beharreko lehenengo lurraldea.

Planteamendu hori Latinoamerikako emakume indigenek sortu zuten. Haiek beren lurren eta herrien kolonizazio-historiaren aurka borrokatu dira, hau da, 500 urte baino gehiago dituen inbasio- eta menperatze-praktikaren kontra. Izan ere, praktika horrek herri horietako kideak erail izan ditu eta beraien baliabide naturalez eta kulturaz jabetu izan da.

Baina praktika kolonizatzaile hori ez da iraganeko kontu bat; aitzitik, denboran zehar, formaz aldatu da. Esate baterako, gaur egun, enpresa transnasionalek, maiz, beraien baliabide naturalak kentzen dizkiete herri indigenei, estatuetako botereen baimenarekin. Praktika neokolonial horiek ere, errepresio handia erabiltzen dute lurraldea defendatzen duten pertsona eta herrien aurka. Errepresio horren barruan, bada, emakumeen aurkako

indarkeria etengabea izan da, iraganean zein gaur egun. Guatemalan, adibidez, milaka emakume indigenak sexu-indarkeria pairatu izan dute eta pairatzen dute, oraindik ere.



Hori dela eta, Latinoamerikako emakume indigena askok beren gorputzak eta bizitzak bere lurraldearen desjabetze- eta gabetze-historiaren parte direla deritzote. Horien arabera, patriarkatu kolonialak (kasu horretan Espainiakoak, batez ere), hots, kolonizatzaileek inposatu zuten matxismoa eta emakumeak menperatzearen ideiak, jatorrizko herrien berezko patriarkatuarekin bat egin zuen eta, hala, biek elkar elikatu dute.

Gaur egun kolonizazioaren eta espoliazioaren aurka borrokatzen diren emakumeek, bada, beren borrokak integrala izan behar duela diote eta emakumeen gorputza defendatu beharreko lehenengo lurraldea dela eta hori errespetatua izatea exijitu behar dela. "Lurralde-gorputza berreskuratzea eta defendatzea" leloak adierazten duen bezala, emakumeen borrokak honako hau onartu behar du: emakumeen kontrako indarkeria anitzak kontuan hartuta, gorputza defendatu beharreko lehenengo lurraldea dela.

Gorputza gure lurralde propio bat dela onartzen badugu, besteei horrela onartu behar dutela ulertarazi behar diegu, hau da, gure gorputza ezin da objektu bat bezala ulertu zeinaren gainean besteek eskubidea duten.

Azkenik, beste ideia garrantzitsu bat da gure gorputzak memoria duela; horretan geure bizitza-esperientziaren orbainak, minak eta erresistentziak antzeman ditzakegu, baita gure arbasoen esperientziarenak ere (amak, amamak, birramamak...).

b) Galdera-gida

- ▶ Zer deritzogu Latinoamerikako emakume indigenek garatu duten "lurralde-gorputz" ideari?
- ▶ Ba al du ideia horrek inolako harremanik edo antzik gure borrokarekin?

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Latinoamerikako emakume indigenek historiaren gainean egiten duten azterketa kritikoaren garrantzia aintzat hartzen dugu. Azterketa hori beraien gorputzen eta bizitzen aurkako indarkeriaren esperientzian oinarritzen da. Hala, lurraldearen defentsa eta gorputzaren defentsa lotzen dituen ideiak beraien borroka antikoloniala eta antipatriarkala aberastu du.

Gainera, beraien kulturetako praktika patriarkalei buruzko hausnarketa ere lagungarria izaten ari da emakume gisa eskubideen alde darabilten borrokan. Izan ere, horrek ez ditu emakumeak bakarrik duin bihurtzen, beraien herriak ere duin bihurtzen ditu.



5. DINAMIKA:**EMAKUMEEN AZTARNAK****HELBURUA:**

Arrazoi desberdinengatik guretzat erreferente garrantzitsuak izan diren emakume horiek gure memoria historikoan sartzea. Horren bitartez, emakumeen artean aintzatespen eta elkartasun handiagoko kultura bat sustatzea.

MATERIALAK:

Markatzaileak eta kartoi meheak. Aztarnen ilustrazioren bat (adibidez, norberaren eskuaren silueta).

PROZEDURA:

Ilustrazioan oinarrituz, lehenbizi, bakoitzak bere bizitzan erreferentetzat edo eredutzat izan dituen emakume bat, bi edo hiru aukeratzeko eskatuko dugu. Zuzenean edo zeharka ezagunak diren emakumeak izan daitezke. Hala, emakume horiek erreferente gisa aukeratzearen arrazoiak pentsatzea garrantzitsua da. Pertsona horien izen-abizenak eta aukeratuak izatearen arrazoiak idatziko ditugu (adibidez, norberaren eskuaren silueta barruan; esku bat irudikatu daiteke aukeratu den emakume bakoitzeko).

Behin horiek aukeratuta, gainontzekoekin partekatuko dugu (talde txikietan edo talde bakar batean). Erreferente bezala errepikatzen den emakumerik baldin badago, horren arrazoiak aztertuko ditugu; sortzen diren izenak oso desberdinak badira, ordea, hori balioetsiko dugu. Izan ere, beren ahaleginaz, ausardiaz eta jakintzaz aztarna utzi duten emakumeen aniztasuna berreskuratzeko ariketa izan da.

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Orokorrean, emakumeak beren artean lehiatzeko hezten eta gizonak eta horien ekintzak gehiago baloratzeko sozializatzen dira. Gizonak duten errespetua eta autoritatea ez zaie emakumeei ematen, nahiz eta berdinean merezi duten. Esaterako, honako hau frogatuta dago: lan-eremuan eta eremu publikoan gizonen balorazio-maila bera lortzeko, emakumeek ahalegin bikoitza egin behar dute.

Horrexegatik, emakumeek beste emakume batzuen balioa eta ekarpena aintzat hartzea estrategikoa da, bai liderrak edo pertsonai publikoak izan direlako bai "ezkutuan" eta egunerokoan (senideak, lagunak, auzokoak, ezagunak...) sufritu, parte-hartu, eutsi edo bizirik iraun dutelako; borrokaren historian horien lana gizonena bezain "heroikotzat" jotzen ez bada ere.



6. DINAMIKA:

ISILTASUNA HAUTSIZ

HELBURUA:

Emakumeen giza eskubideen urraketen salaketa- eta sentsibilizazio-tresnen gainean hausnartzea, Guatemalako emakumeek sexu-indarkeriaren aurka antolatutako auzitegi sinbolikoan oinarrituz.

MATERIALAK:

Guatemalako gatazka armatuan izandako emakumeen kontrako sexu-indarkeriaren aurkako Kontzientzia Auzitegiari buruzko testua eta galdera-gida.

PROZEDURA:

Testu laburra emango diegu hori irakur eta azter dezaten. Talde txikietan banatuz zein talde bakar batean irakur dezakete, saioan parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera. Testua irakurri eta gero, galdera-gida erabiliko dugu testuan agertutako ideien gainean hausnartzeko.

a) Guatemalako gatazka armatuan izandako emakumeen kontrako sexu-indarkeriaren aurkako Kontzientzia Auzitegiari buruzko testua

Guatemalako gerrak 36 urte iraun zuen, hain zuzen ere, 1960tik 1996ra arte, hau da, gobernuaren eta Guatemalako Unitate Iraultzaile Nazionalaren (URNG) arteko bakea sinatu zen arte. Guatemalako zenbait emakume-erakundek urteak eman dituzte gatazka armatuan emakumeek pairatutako sexu-indarkeria salatzen eta, azkenean, bertako militarren estrategia planifikatu bat izan zela frogatzea lortu dute.

Estatuaren eta armadaren zigorgabetasun-maila eta auzitegiaren justizia lortzeko zailtasunak kontuan hartuta, 2010ean, hainbat emakume-erakundek sexu-indarkeriaren erantzuleak epaitzeko auzitegi sinboliko bat antolatzea erabaki zuten.

Auzitegi sinboliko hori ospatu aurreko urteetan, emakume aktibistak sexu-indarkeriaren biktime zuzenei laguntza psikosoziala eta akonpainamendua eskaintzeko antolatu ziren. Biktime horietako gehienak maia indigenak ziren. Hala, aktibista horiek sexu-indarkeriaren gaineko isiltasuna hausten eta beren zauriak sendatzeko bidean jartzen lagundu zieten emakumeei. Biktimak lotsagatik, beldurragatik eta/edo egin zieten horregatik errudun sentitzen zirelako, krimen horri buruz isiltasuna gorde zuten urte luzez. Izan ere, mundu osoan, sexu-indarkeria giza eskubideen urraketa bakarra da non errua erasotzaileei leporatu beharrean biktimei leporatzen zaien. Horregatik, oso garrantzitsua izan zen erantzukizuna emakumeengandik kanpo dagoela ohartzeko lan egitea; erru osoa emakume horiei eraso zieten gizonena baita.

Guatemalako emakumeen auzitegi sinbolikoan, sexu-indarkeriaren biktime zuzen izandako zazpi emakumek pairatutako indarkeriari buruzko testigantza eman zuten. Emakume horiek, aldeztu aurretik, laguntza psikosoziala jaso izan zuten. Hala, beraien hizkuntzan honako hau azaldu zuten: zer, nola eta non gertatu zen, egileak nortzuk izan ziren eta, batez ere, nola sentitu ziren eta nola sentitzen diren gaur. Gainera, giza eskubideen urraketa larri horregatik zer erreparazio-neurri eskatzen duten ere azaldu zuten.

Auzitegian arlo desberdinetako hainbat aditu izan ziren (medikuntza, antropologia, zuzenbidea, generoa, etab.). Adituek, sexu-indarkeriak emakume horiengan zer nolako eragina izan zuten

azaldu zuten. Halaber, indarkeria hori, gaur egun, gerrako, gizateriaren aurkako eta/edo genozidio krimena izateko arrazoia ere azaldu zuten.

Auzitegiak 500 pertsona bildu zituen "Ahazturarik ez, isiltasunik ez" lelopean: horietako gehienak sexu-indarkeria gehien pairatu zuten komunitateetako kideak ziren. Horiez gain, hainbat emakume-erakunde eta nazioarteko elkartasuneko kidek parte hartu zuten.

Auzitegia, bada, emakumeen ekintza politiko sinbolikoa izan zen. Horrek ez zuen Estatuaren aintzatespena izan eta bere emaitzak ez ziren lotzaileak izan, baina lorpen handia izan zen biktimek eta horiek bidean lagundu zituzten emakume-erakundeentzat. Besteak beste, honako helburu hauek erdietsi zituzten: herrialdeko justizia formalaren falta bistaratzeko; gertatutakoaren erantzukizuna erasotzaileei (armadari) leporatzeko eta ez emakumeei; eta gizarte osoak egia ezagutzeko eta sexu-indarkeriaren gaineko eztabaida publiko sustatzeko, biktimek justizia eta erreparazioa lortzeko helburuz herrialdeak landu behar duen auzi garrantzitsua bait da.

Gaur egun ere, borroka horrek ekarpenak egiten jarraitzen du. 2016ko otsailaren 1ean, biktimek eta emakume-erakundeek etengabe egindako ahaleginari esker, epaiketa formal bat abiatu zen – herrialdeko justizia-sistemaren baitan – Guatemalako armadako kide baten eta paramilitar baten kontra. Horiei, 15 emakumeren sexu-esklabotza leporatu zitzaizkien, beste delituen artean. 1982 eta 1986 artean, armadak Sepur Zarco izeneko komunitatean destakamentua kokatu zuen. Bertan, soldaduek emakumeak uniformeak eta instalazioak garbitzera eta haien zatiak janaria prestatzera behartzeaz gain, behin eta berriro bortxatu zituzten. Epaiketa hori "Sepur Zarco kasua" izenez ezagutzen da eta garrantzi handia du; izan ere, hori izan zen Guatemalan gatazka armatuko sexu-indarkeriaren erantzuleak epaitzen eta kondenatzen zituzten lehenengo aldia.

b) Galdera-gida:

- ▶ Zer nolako sentimenduak eta hausnarketak eragiten dizkigu Guatemalako emakumeen esperientzia horrek?
- ▶ Posible izango litzateke horrelako esperientzia bat gure testuinguru hurbilean gertatzea?

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Auzitegi sinbolikoak gizarte erakunde askok erabiltzen duten tresna da, emakume-erakundeak eta erakunde feministak barne. Auzitegi mota horrek sistema ofizialaren justizia falta salatzen balio ez ezik, giza eskubideen urraketa larrien biktimek testigantza erdigunean jartzeko tresna ere bada.

Ikusi dugun adibide horretan emakumeak dira protagonistak, bai biktima izandakoak bai gatazka armatuko sexu-indarkeria epaitzeko salaketa-ekintza antolatzen lagundu zutenak. Hori, elkarrizketa askoren bitartez eta beraien artean konfiantza-eremuak sortu ondoren lortu zuten.

Auzitegi sinbolikoak ohiko sisteman justizia-prozesuak aktibatzen laguntzeko tresna izan daitezke; Guatemalako kasua horren erakusgarria da. Gainera, ekintza mota horrek memoria egiteko eta gertatutakoa aitortua izateko eremu bat sortzen laguntzen du; kasu honetan, urte askoz isilean izandako sexu-indarkeria kasuei dagokienez.





7. DINAMIKA: **MEMORIA-LEKUAK**

HELBURUA:

El Salvadorren giza eskubideen aktibista diren hainbat emakumek sustatutako Memoriaren eta Egiaren Monumentuaren esperientzian oinarrituz, memoria-lekuen ahalmenaren gainean hausnartzea.

MATERIALAK:

El Salvadorreko Memoriaren eta Egiaren Monumentuari buruzko testua eta galdera-gida.

PROZEDURA:

Testu laburra emango diegu hori irakur eta azter dezaten. Talde txikietan banatuz zein talde bakar batean irakur dezakete, saioan parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera. Testua irakurri eta gero, galdera-gida erabiliko dugu testuan agertutako ideien gainean hausnartzeko.

a) El Salvadorreko Memoriaren eta Egiaren Monumentuari buruzko testua

El Salvador gerran izan zen 1980 eta 1992 artean. Azken urte horretan, gobernuak eta Nazio Askapenerako Farabundo Marti Fronteak (FMLN) Bake akordioak sinatu zituzten. Kalkuluen arabera, gerra horretan 75.000 pertsona hil ziren eta 9.000 pertsona desagertarazi zituzten.

Eraildako eta desagertarazitako senideen erakundeek eta giza eskubideen aldeko erakundeek etengabe lan egin zuten gatazkan zehar eta bake-akordioak sinatu eta gero. Erakunde horiek, emakumeek osatzen zituzten batez ere. Gatazkan, bada, aktibista horiek errepresioa salatu zuten; preso politikoekin konpainamenduan egon ziren; gose grebak egin zituzten, beren eskaerak arreta izan zezaten; elizak eta enbaxadak okupatu zituzten, salaketa-estrategien parte bezala; etengabe manifestatu ziren kalean, etab. Gainera, estatuaren errepresio-praktikak pairatzen zituztela kontuan hartu behar dugu; izan ere, horietako asko atxilotuak, torturatuak, desagertaraziak edo erailak izan ziren.

Gaur egun, emakume horiek estatu-krimenei buruzko egia ezagutzeko, justizia lortzeko eta biktimek erreparazioa izan dezaten lan egiten jarraitzen dute. Hala, aktibista horiek irmo jarraitzen dute gatazkaren memoria historikoa biktimen ikuspegitik eraikitzeko borroka horretan; zeren estatuak, 1993an dekretatutako Amnistia Legearen bitartez bere bertsio ofiziala inposatu baitzuen. Lege horren ondorioz, ezin izan dira gerrako eta gizateriaren aurkako kriminalak epaitu. Emakumeek, beraz, giza eskubideen urraketa kasuak dokumentatzen jarraitzen dute (kasu indibidualak eta sarraskiak); desagertarazitakoak bilatzen jarraitzen dute; eraildako eta hobi

komunetan lurperatutako pertsonen gorpuak lurpetik ateratzea sustatu dute; eta Amnistia Legea indargabetzea etengabe exijitu dute.

Gainera, giza eskubideen aktibista bezala beste ekarpen handi bat egin dute, hain zuzen ere, "memoria-lekuak" sustatuz. Horien artean, esperientziarik nabarmenena Memoriaren eta Egiaren Monumentua da. Memorial hori oso leku garrantzitsua da, horretan, 1970 eta 1992 artean, gatazka armatuan eraildako edo desagertarazitako ia 30.000 pertsonen izenak baitaude idatzita.

"Memoria-leku" hori eraikitzeko, lehenik, ikerketa bat burutu zuten ahalik eta biktimen izen kopuru handiena biltzeko eta egiaztatzeko. Horretarako, bada, giza eskubideen erakundeek zuten informazioan oinarritu eta informazio berria ere bildu zuten. Gainera, memoriale eraiki zuten erakundeek "Ez ahazteko izenak" kanpaina bultzatu zuten gastuen zati bat estaltzeko baliabideak lortzeko helburuz. Halaber, nazioarteko elkartasunak ere bere ekarpena egin zuen.

Eraiki zenetik, pertsona askok bertara jotzen dute haien pertsona maiteekin elkartzeko, izan ere, kasu askotan, hori da horretarako duten leku bakarra; loreak eramaten dizkiete, dolua egiten dute eta eraildako edo desagertarazitako senide horiek ohoratzeko eta duin egiteko zeremoniak ospatzen dituzte.

Halaber, Monumentuak gerra bizi izan ez duten gazteekin memoria historikoa lantzeko hezkuntza-tresna bezala ere balio du. Gainera, memoriale El Salvadorreko giza eskubideen aldeko mugimenduarentzat erreferentzia-leku bilakatu da. Esate baterako, bertan erakunde askok betetzeke dauden egia eta justizia eskaerak gauzatzea exijitzeko prentsaurrekoak antolatzen dituzte.

b) Galdera-gida:

- ▶ Zer deritzegu horrelako ekintzei?
- ▶ Zer nolako esanahia dute memoria-lekuek Mendebaleko Saharako gaur egungo borrokan?
- ▶ Zein izango litzateke Saharako emakumei dedikatutako memorial baten indarra? Zer helburu bete ahalko litzuzke?

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

"Memoria-lekuak" indarkeria- eta errepresio-ekintzak eta hilketak ez ahazten laguntzeko helburua duten eremu fisikoak dira. Hau da, egiaren etengabeko lekukoak izateko helburua dute. El Salvadorreko kasuan, estatuaren biktimen egiaz ari gara, indarkeria gehien pairatu duten horiena eta normalean beren kontakizuna entzuna izateko baliabiderik ez duten horiena, alegia. Biktimekin bat egiteko lekuak dira; horietan posible da beren memoria gordetzea eta duin egitea eta herriaren historia kolektiboan leku iraunkor eta publiko bat ematea.

Espazio horiek, beraz, garrantzitsuak dira beren pertsona maiteak lurperatu ezin izan dituzten familia horientzat batez ere, hori beraien ohituren eta kulturaren arabera egiteko itxaropena mantentzen baitute. Dolua beharrezko prozesua da galerak sortutako zauria sendatzen laguntzeko, partzialki bada ere. Kasu horietan, memoria-lekuak topaketa pertsonalerako eta gizartearen aintzatespenerako alternatiba izan daitezke, biktimen senideentzat lagungarriak direlarik. Halaber, ekimen mota horiek balio pedagogiko handia dute gizarte osoarentzat eta batez ere gazteentzat, indarkeriaren gaineko hausnarketa eta eztabaida sustatzen baitituzte.

Horren guztiaren ondorioz, memoria-lekuak emakume aktibisten lana artikulatzeko ardatz posible bat izan daitezke.



8. DINAMIKA:

EMAKUMEEN EGIA

HELBURUA:

Emakumeen esperientzien gaineko ikerketaren, dokumentazioaren eta sistematizazioaren ahalmena aztertzea, egia-, justizia- eta erreparazio-agendaren parte bezala.

MATERIALAK:

Kolonbiako Emakumeen Egiaren Txostenari buruzko testua eta galdera-gida.

PROZEDURA:

Testu laburra emango diegu hori irakur eta azter dezaten. Talde txikietan banatuz zein talde bakar batean irakur dezakete, saioan parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera. Testua irakurri eta gero, galdera-gida erabiliko dugu testuan agertutako ideien gainean hausnartzeko.

a) Kolonbiako Emakumeen Egiaren Txostenari buruzko testua

Emakumeen Bide Baketsua (RPM) Kolonbiako erakunde handienetariko eta ospetsuenetariko bat da. 1996an sortu zen 2000 emakume baino gehiago bildu zituen mobilizazio handi baten ondorioz. Ekintza horren helburua, alde batetik, gerrak gehien kaltetutako eskualdeetako emakumeei elkartasuna adieraztea zen eta, bestetik, herrialde osoari eta nazioartean ere horien egoera larria ezagutzera ematea.

2010ean, RPMk gatazka armatuan emakumeek bizi izandako giza eskubideen urraketa modu anitzak ikertzeko proiektu bat martxan jarri zuen. Erakundeak 932 kasu indibidual eta 9 kasu kolektibo dokumentatu ahal izan zituen. 17 eta 83 urte arteko emakume horiek esperientzia latz eta mingarrien gaineko testigantza eman zuten: jazarpena, mehatxuak, atxiloketak, torturak, sexu-bortxaketak, senideen hilketak eta desagerpena, etab. Emakume askok ez zuten, aldez aurretik, beren eskubideen urraketa horiei buruz hitz egin, baina hitz egin ondoren saminak arindu zitzaizkiela adierazi zuten.

Kasuen dokumentazioa herrialdeko bederatzi eskualdetan egin zen eta RPMko kideek beraiek egin zuten. Aldez aurretik, pertsona horiek lan horretarako aproposa den metodologiari buruzko trebakuntza egin zuten. Hala, prozesua oso arduratsua eta begirunetsua izan zen biktimekin indarkeria, oinazea, zauri irekiak eta abar lantzean. Izan ere, dokumentalistetako asko ere indarkeriaren biktima zuzenak ziren eta, hortaz, bazekiten enpatia oso beharrezkoa zela.

Hiru urtez lan eta lan ibili ondoren, prozesua txosten honekin bukatu zen: "Emakumeen Egiaren Txostena. Kolonbiako gatazka armatuaren biktimak". Txostenak oihartzun handia izan zuen: elkarrizketatutako emakume guztien artean ezagutzera eman zuten; hainbat instituzio, giza eskubideen aldeko erakunde, unibertsitate eta abarrekin nazio-mailako zein nazioarteko foroetan aurkeztu zuten; eta bi alderdi aurkariei (gobernuari eta FARC gerrillari) eman zieten, horiek bake akordio batera heltzeko negoziazioetan zeudelarik.

"Emakumeen Egiaren Txostena" inoiez bezalako esperientzia da; izan ere, mundu mailan horrelako esperientzia bat egiten den lehenengo aldia izan da. Dokumentua oso garrantzitsua da hainbat



arrazoiengatik: lehenik, emakumeen testigantzak erdigunean jarri zituelako, gatazka armatuan beraien eskubideak urratzean bizi izan zutena sinistuz eta aintzat hartuz; bigarrenik, dokumentu estrategikoa da, bake akordioen negoziazio eta gauzatze prozesuan eragina izan zezakena. Emakumeek, bada, hau eskatu zuten: akordio politikoek beraiek txostenean zehaztutako justizia eta erreparazio eskaerak kontuan har zituzten. Azkenik dokumentu eta esperientzia garrantzitsua da, gatazka armatuko egoeran bizi diren beste hainbat emakumerentzako eredu baita.

b) Galdera-gida:

- ▶ Zer ikas dezakegu Kolonbiako emakume antolatuen esperientzia horretatik?
- ▶ Ba al dakigu zer esan zuen Marokoko Ekitate eta Adiskidetze Instantziaren (IER) txostenak Saharako emakumeen gainean?

BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Gatazka politiko-armatuak izan dituzten herrialde askotan Egiaren Batzordeak sortu izan dira, kasu gehienetan, nazio-mailako edo nazioarteko instituzioen ekimenez. Batzorde horiek oso gutxitan egiten dute genero azterketa indarkeriak gizonengan eta emakumeengan izan duen eragin desberdinen nolakotasuna ezagutzeko. Orokorrean, Batzorde horien txostenek alde batera uzten dute edo ez dute behar bezala jasotzen emakumeen aurkako indarkeriaren larritasuna.

Emakumeen Bide Baketsuak inoiz ez bezalako esperientzia eskaintzen digu, oso balio handikoa dena. Alde batetik, gizarte mugimendutik eta batez ere emakumeen mugimendutik sortutako Egiaren Batzorde bat sortzea lortu du; bestetik, arreta batez ere emakumeen giza eskubideen urraketetan jartzen duen batzordea da. Gainera, emakumeek gatazka ireki baten testuinguruan eta arrisku handiko egoeran egin dute ikerketa hori.

Adibide horrek, beraz, gure estrategiak baloratzen animatzen gaitu, okupazio militarreko eta erbesteratze behartuko testuinguruan Mendebaldeko Saharako emakumeek pairatzen dituzten indarkeriak dokumentatzeko eta salatzen.



9. DINAMIKA:

EGIA, JUSTIZIA ETA ERREPARAZIO BIDEAK

HELBURUA:

Emakumeen memoria historikoaren lana eta egia, justizia eta erreparazio prozesuen gainean duten ikuspegia lotzea.

MATERIALAK:

Txartelak (kartoi mehe edo paperezkoak), zela, markatzaileak.

PROZEDURA:

Txartelak prestatuko ditugu honako hitz edo esaldi labur hauekin: 1) epai-prozesuak, 2) lurpetik ateratzeak, 3) egiaren batzordeen txostenak, 4) memorialak eraikitzea, 5) giza eskubideen urraketen erantzuleen barkamen-ekintzak, 6) kalte-ordainak, 7) auzitegi sinbolikoak edo kontzientzia auzitegiak, 8) indarkeria-kasuak ikertzea, 9) biktimen bizitza-historiak dokumentatzea, 10) gertakariak edo pertsonak oritzeko ekitaldiak, 11) omenaldiak, 12) gatazkaren ondorio batekin lotutako egunei buruzko dekretuak (esate baterako, desagertarazitakoaren eguna), etab. Hitz edo esaldi bakoitzeko txartel bat erabiliko dugu.

Horrez gain, honelako eskema bat prestatuko dugu (karratu edo biribil handietan):



Taldeari aldeaz aurretik idatzitako txartelak emango dizkiogu eta emakumeei horietako bakoitzaren edukari edo esanahiari buruz hausnartzeko eta beren iritzia partekatzeko eskatuko diegu. Jarraian, beste txartel batzuetan beraientzat garrantzitsuak diren eta guk emandako txarteletan ez dauden hitz edo esaldi laburrak idazteko eta horien esanahia azaltzeko eskatuko diegu.

Gero, txartelak esparru bakoitzaren barruan edo azpian (egia, justizia, erreparazioa) kokatzeko eskatuko diegu. Horretarako, taldean egindako eztabaidan oinarrituz, txartel bakoitza lotura handiena duen esparru horretan kokatuko dute. Txartel batzuek esparru batekin, birekin edo hirurekin izan dezakete lotura.

Oso garrantzitsua da bideratzaileak hausnarketa motibatzea txartel bakoitzaren edukia emakumeen ikuspegitik edo esperientziatik aztertua izan dadin.



BIDERATZE-PROZESURAKO ONDORIO EDO IDEIA NAGUSIAK:

Egia, justizia eta erreparazio prozesuak gatazka politiko-armatuetako indarkeriei aurre egiteko hiru esparru estrategiko dira giza eskubideen aldeko erakundeentzat. Oinarri teorikoaren atalean ikusi dugun bezala, prozesu horiek ez dute beti kontuan hartzen gatazkek gizonengan eta emakumeen duten eragin desberdina; gizonak eta emakumeek justizia eskubidea gauzatzeko eta erreparazioa lortzeko duten aukera desberdinak.

Desberdintasun horiek gainditzeko, emakumeen aurkako indarkeria-ekintzen egia osoa ezagutu behar dugu; identifikatu behar dugu zeintzuk diren haien justiziarako eskubidea murrizten duten faktoreak (sozialak, kulturalak, ekonomikoak...); eta eragin dieten kaltea konpontzeko beraiek zer nolako neurriak proposatzen dituzten jakin behar dugu.



BIBLIOGRAFIA

Zenbait egile (2007): *Declaración de Nairobi sobre el derecho de las mujeres y las niñas a interponer recursos y obtener reparaciones*. Hemen: <https://www.fidh.org/IMG/pdf/DeclaraciondeNairobi-es.pdf>

Cabnal, Lorena (2010): "Acercamiento a la construcción de la propuesta de pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala", in ACSUR Las Segovias: *Feminismos diversos, feminismo comunitario*, Madril. Hemen: <https://dl.dropboxusercontent.com/u/55509849/Enlace%20hacia%20Feminismos%20diversos.pdf>

Consejería en Proyectos (PCS) (2007): *Justicia y reparación para mujeres víctimas de violencia sexual en contextos de conflicto armado interno*, Nazioarteko Mintegia, Lima, Peru. Hemen: <http://new.pensamientopenal.com.ar/16062009/genero04.pdf>

ECAP & UNAMG (2009): *Tejidos que lleva el alma. Memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado*, F&G Editores, Guatemala. Hemen: <http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18090/original/Tejidosquelllevaelalma3.pdf?1283851099>

Guzmán Orellana, Gloria & Mendiá Azkue, Irantzu (2013): *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador*, Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/292/Mujeres_con_memoria.pdf?1371741516

Martín Beristain, Carlos (2009): *Diálogos sobre la reparación. Qué reparar en los casos de violaciones de derechos humanos*, Ekuadorreko Justizia eta Giza Eskubideen Ministerioa, Quito. Hemen: http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/18235/original/Dialogos_sobre_reparaci_n.pdf?1294998586

Martín Beristain, Carlos & González Hidalgo, Eloísa (2013): *El Oasis de la Memoria. Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sáhara Occidental* (I. eta II. liburukiak), Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/281>

Mendiá Azkue, Irantzu (2012): "Trantsiziozko Justizia: Dilemak eta kritika feminista", in *Lan-koadernoak Hegoa*, 59. zkia., Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/237/Lan_Koaderno_59.pdf?1488539793

Mendiá Azkue, Irantzu (2009): "Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra", in *Lan-Koadernoak Hegoa* 48. zkia., Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/200/Lan_koaderno_48_euskera.pdf?1488539721


Mendiá Azkue, Irantzu & Guzmán Orellana, Gloria (argtz.) (2012): *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado interno en Guatemala*. Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/279/Ni_olvido,_ni_silencio.pdf?1342173748

Sapriza, Graciela (2009): "Memorias de mujeres en el relato de la dictadura (Uruguay, 1973-1985). Violencia/cárcel /exilio", *Deportate, esuli, profughe. Revista telematica di studi sulla memoria femminile*, 11. zkia., 64-80. orr. Hemen: http://www.unive.it/media/allegato/dep/n_1_speciale/05_Sapriza.pdf

Ruta Pacífica de las Mujeres (2013): *La Verdad de las Mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia* (I. eta II. liburukiak), Bogotá. Hemen: <http://www.rutapacifica.org.co/publicaciones/198-la-verdad-de-las-mujeres-victimas-del-conflicto-armado-en-colombia-informe-de-comision-de-verdad-y-memoria>

Ruta Pacífica de las Mujeres, Afonso Carla & Martín Beristain, Carlos (2013): *Memoria para la vida. Una comisión de la verdad desde las mujeres para Colombia*. Ruta Pacífica de las Mujeres eta Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdfs/290/Memoria_para_la_vida.pdf?1368178335

EDITOREAK



Asociación de Amigas y Amigos de la RASD de Alava
Arabako SEADen Lagunen Elkartea

